



## Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2019ko azaroaren 18tik azaroaren 22rako astea

---

### ➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

### ➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**


### ➤ **GURE IKUSPEGIA**

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

PMI Manufacturero

### UROGUNEA:

### MANUFAKTUREN/ZERBITZUEN PMI



## Datuaren analisisa


**uroguneko manufakturen PMIa** aurreko hileko 45,9tik 46,6ra igo da azaroan; azken hiru hiletako aximoa. Zerbitzuen PMIak, bestalde, atzera egin du: urriko 52,2tik 51,5era, azken hamar hiletako inimora. Herrialdeka, **Alemanian**, manufakturen datua 42,1etik 43,8ra igo da, bost hiletan izan den irakurketarik onena; eta zerbitzuen PMIa, berriz, 51,6tik 51,3 puntuetara jaitsi da, 38 hiletan an duen mailarik baxuenera. **Frantzian**, manufakturen PMI indizea 51,6 puntutara igo da, bost letan izan duen mailarik altuenera, eta zerbitzuen datuak 52,9 puntuei eutsi die.

## Adierazlearen azalpena

Al Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hilero erosketen profesionaleri eta enpresetako exekutiboeri anufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. ibrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. liazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten

akaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, onomia uzkuratzen ari den seinale.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA



### Datuaren analisia

**Etxebizitza berrien** salmentak % 3,8 egin zuen gora joan den urrian, 1.314 milioiraino, aurreko urtearekin % 7,9 jaitsi ondoren. **Eraikitze baimenak** % 5 igo ziren joan den hilean, 1.461 milioi baimenteko tasara (erritmorik azkarrena 2017ko maiatzetik), % 3,2 hazitako etxebizitza baimenak bultzatuta.

### Adierazlearen azalpena

Hasitako Etxebizitzaren indizeak kasu kasuko hilean eraikitzen hasi diren egoitza-unitateen kopurua erakusten du. Adierazle honen bilakaerak familia iparramerikarrek haien finantza-egoeraren gainean erakusten duen konfiantza-maila erakusten du. Horrez gain, Eraikuntza sektorearen bilakaera islatzen du. Eraikuntza Baimenen adierazlea AEBetako Merkataritza saileko Census Bureauk argitaratzen du.

ero. Epe jakin batean eman diren eraikitze lizentzien kopurua neurtzen du. Eraikuntza ktorearen bilakaera islatzen duen adierazle bat da.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

EB: FEDen AKTAK



### Datuaren analisia


EBetan FEDen azken aktak argitaratu ziren, eta horien arabera, etengabeko tentsio komertzialak a inflazioaren erritmo motela izan ziren urrian banku zentrala interes tasak murriztera eramanean iten kezka nagusiak. Horrez gain, jakin genuen repo mekanismo iraunkor bat ezartzeko aukeraren guruko eztabaidak izan zirela berriro, epe motzeko diru-merkatuekin izandako arazoaren ondoren.

### Adierazlearen azalpena

EBd-en aktak Erreserba Federalaren bilera egin eta bi aste geroago argitaratzen dira. Batzordearen buruzko bileraren erregistroak dira. Gainera, diru-politikaren inguruan FEDek duen buruzko informazio zehatza eskaintzen dute. Informazio hori arretaz aztertzen da, intere-

sen inguruko etorkizuneko erabakien emaitzari buruzko zantzuak aurkitzeko.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA



### Datuaren analisisa

**Konsumorako prezioen indizea** % 0,7 igo zen urrian, 2018ko hil beraren aldean. Kontzeptu iztiak batuta, KPlak % 0,2 egin zuen gora urrian. Bada, urriko aldakuntzan eragin handiena izan zuten sektoreei dagokienez, altzarien eta etxeke tresnen sektorea % 4,2 hazi zen, eta osturuntziak % 7,8 egin zuen behera.

### Adierazlearen azalpena

Oraindik hilerik prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du osturuntziaren prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den,



unekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

## KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
11/25	Alemania	IFO enpresen egoera	95.0
11/25	Alemania	IFO aukerak	92.5
11/25	Alemania	IFOren gaur egungo ebaluazioa	97.9
11/25	Estatu Batuak	Chicagoko Fed-en indize nazionala	-0.20
11/25	Estatu Batuak	Manuf. jarduera Fed Dallas	-3.8
11/26	Alemania	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	9.6
11/26	Estatu Batuak	MoM xehekako inbentarioak	% 0.2
11/26	Estatu Batuak	Ondasun aurreratuen balantza komertziala	-\$71.2b
11/26	Estatu Batuak	MoM handizkako inbentarioak	% 0.1
11/26	Estatu Batuak	Richmond manufakturen indizea	6
11/26	Estatu Batuak	Etxebizitza berrien salmenta	708k
11/26	Estatu Batuak	Konf kontseiluaren kontsumitzailearen konfiantza	127.0
11/26	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berrien salmenta	% 1.0
11/26	Estatu Batuak	Konf kontseiluaren egoera	--
11/26	Estatu Batuak	Konf kontseiluaren espektatibak	--
11/27	Frantzia	Kontsumitzailearen konfiantza	103
11/27	Italia	Sentimendu ekonomikoa	--
11/27	Estatu Batuak	Hiruhilekoko BPGd urtekotua	% 1.9
11/27	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	-% 0.8
11/27	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	221k
11/27	Estatu Batuak	Diru-sarrera pertsonalak	% 0.3
11/27	Estatu Batuak	Gastu pertsonala	% 0.3
11/27	Estatu Batuak	Egiteke dauden hileko etxebizitzen salmentak	% 0.2
11/27	Estatu Batuak	Egiteke dauden etxebizitzen salmentak urte artekoa	% 6.0
11/27	Estatu Batuak	Liburu Beixa - Erreserba Federala	0
11/28	Japonia	Hileko xehekako salmentak	-% 10.4
11/28	Espainia	Hileko KPIa	% 0.2
11/28	Espainia	Urte arteko xehekako salmentak	--
11/28	Eurogunea	Konfiantza ekonomikoa	101.0
11/28	Eurogunea	Enpresa-arloko klima	-0.14
11/28	Eurogunea	Konfiantza industrialala	-9.1
11/28	Eurogunea	Zerbitzuen konfiantza	8.8
11/28	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	--
11/28	Alemania	Hileko KPIa	-% 0.6
11/29	Japonia	YoY Tokioko KPI	% 0.6
11/29	Japonia	Hileko industria-ekoizpena	-% 2.0
11/29	Erresuma Batua	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	-14
11/29	Alemania	Hileko xehekako salmentak	% 0.2
11/29	Frantzia	Hileko KPIa	% 0.0
11/29	Frantzia	Hiruhileko BPGd	% 0.3

11/29	Eurogunea	Langabezia-tasa	% 7.5
11/29	Eurogunea	Hileko KPIa	-% 0.4
11/29	Eurogunea	YoY azpiko KPIa	% 1.2
11/29	Italia	Urte arteko WDA PMIa	% 0.3

# ASTE HONETAN MERKATUETAN

## URTSA:

urtsako indizeen balantzea negatibo samarra izan zen EBetan eta Asian, eta mistoa Europan. Beste behin, AEBen eta Txinaren arteko gerra komertzialaren inguruko ziurgabetasunak agina izan zuen burtsa-indizeetan. AEBek hiru hilabetez luzatu zuten Huawei-ri ezarritako zigorrak indarrean sartzeko epea, berrizketek aurrera egin dutelako zantzu gisa ulertu zena. Hala ere, Trumpek egindako adierazpenek, akordiorik egin ezeara uga-zergak are gehiago handituko dituela azpimarratuz, eta beste Xuriko filtrazioek –muga-zergen karga gutxitzeko, Txinako indizeen presioen aurrean lehenengo fasea hurrengo urtera arte zeratu litekeela ezagutzera eman zutenek– agerian utzi zuten potentziaz arteko tentsioa. Tirabira horiek are gehiago bizitu zuten AEBek aurrera eramanez nahi duen lege-proiektuaren ondoren, Hong Kongeko erregimenaren kontra daudenen giza eskubideak babesteko, hain zuzen ere. Ageriko desadostasunak irabehera, badirudi bi potentziaz negoziazioen alde biko beste era bat egingo dutela Pekinen datorren astean. Gainera, Txinaren amaieran, akordioa gertu dagoela esan zuen Trumpek, merkatuak berpizteko balio izan zuena. Bestalde, ELGaren perspektiba ekonomikoak argitaratu ziren, eta munduko ekonomia azken hamarkadako erritmorik motelenean haziko dela aurreikusten dute (aurten, % 2,9ko erritmoan), baita 2020rako pronostikoa % 3ko kalkulutik behera kokatu ere.

## ERRENTA FINKOAK:

EBen eta Txinaren arteko akordio komertzialak eragindako ziurgabetasunak zor subiranoaren erosketak suspertu zuten. Txinari horrela, hamar urterako bonu alemaniarren erentagarritasuna 3 op jaitsi zen, eta arrisku-prima 76 puntuetan erantendu zen. AEBetan, mugimendua handixeagoa izan zen, eta hamar urterako tasa 6 op jaitsi zen, % 1,77raino. Kreditu-merkatuan aldaketa gutxi.

## BISAK / LEHENGAIK:

oroaren balioa apenas aldatu zen dolarraren aldean, eta truke-tasa 1,10 \$/€ mailan geratu zen. Yenaren eta liberaren aurrean ez zuen ia aldaketarik izan. Lehengaiak begira, petrolioaren prezioa % 1,49 jaitsi zen, akordio komertzialak sortutako ziurgabetasunak eta AEBetan petrolio gordinaren inbentarioen erakadak eraginda. Urrearen balioak, bestetik, % 0,46 egin zuten atzera, 1.461,60 \$/ontza mailaraino.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	Ald. % 2019
MSCI WORLD (Local)	1.746,71	-0,30	21,18
IBEX 35	9.254,70	-0,07	8,37
DJ EURO STOXX 50	3.687,32	-0,65	22,85
DJ STOXX 50	3.322,09	-0,45	20,36
FTSE	7.326,81	0,33	8,90
S&P 500	3.110,29	-0,33	24,07
Dow Jones	27.875,62	-0,46	19,50
NASDAQ	8.519,89	-0,25	28,40
NIKKEI 225	23.112,88	-0,82	15,48
MSCI GORAKORRAK (Lo)	58.660,29	0,14	9,80
MEXBOL	43.521,86	0,30	4,52
BOVESPA	108.692,30	2,00	23,67
SHANGHAI	3.022,97	-0,21	15,76
Errusia Rts Mosku	1.455,42	0,41	36,18

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2019
ALEMANIA 2 URTE	-0,64	0,00	-0,03
ESPAINIA 2 URTE	-0,38	-0,01	-0,14
AEB 2 URTE	1,63	0,02	-0,86
ALEMANIA 10 URTE	-0,36	-0,03	-0,60
ESPAINIA 10 URTE	0,41	-0,03	-1,01
AEB 10 URTE	1,77	-0,06	-0,91
ALEMANIA 30 URTE	0,16	-0,03	-0,72
ESPAINIA 30 URTE	1,30	-0,02	-1,31
AEB 30 URTE	2,22	-0,08	-0,79
<b>Kreditu-spreada (op)</b>			
MARKIT ITRX EUROPE 12/24	49,75	0,48	-38,62
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/24	234,11	-0,77	-119,58

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2019
Dolarra / Euroa	1,10	-0,28	-3,91
Yena / Euroa	119,77	-0,36	-4,71
Libera / Euroa	0,86	0,33	-4,42
Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2019
Petrolio (Brendt)	62,98	-1,49	18,45
Urrea	1.461,60	-0,46	13,97

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.